

# MARIA, ESPIRITUAREN ARTELANA

## 1. EZ BILDURTU, MARIA!

*. Jaunaren asmoak  
beti-betikoak,  
eta danak dira  
gu salbetakoak (2)*

*. Ez izan bildurrik  
birjina Maria,  
Neu naz zure indar  
eta gidaria (2)*

## 2. AGUR JAINKOAREN GOGOKO HORI! JAUNA ZUREKIN!

*. Jainkoak zaitu zu,  
Maria, gogoko,  
eta Berak zaitu  
goraino jasoko (2)*

*. Zein ederra zaran  
Jainkoak egina!  
Zeugan dau, Maria,  
Jaunak atsegina (2)*

## 3. ESPIRITU SANTUA JATSIKO DA ZUGANA

*. Espiritua da  
Zugaz bat eginik,  
Harentzat ez dago  
ezertxo ezinik (2)*

*. Jainkoa begira  
bere artelana:  
zeu aukera zaitu  
Semearen Ama (2)*

## 4 . HONA HEMEN JAUNAREN MIRABEA

*. Zeu zaitut, Jainkoa,  
Zu nire Jabea,  
hemen naukazu prest  
zure mirabea (2)*

*. Egin bedi nigan  
Zuk nahi dozunez,  
erantzuten deusut  
baietz maitasunez (2)*

## 5. ZORIONEKOA SINISTU DOZULAKO

*. Jaunak egin zaitu  
zorionekoa,  
sinistu dozu-ta  
Hak esandakoa (2)*

*. Ni hutsa izanik,  
hau Berak egin dau,  
maite naualako  
hain haundi egin nau (2)*

## 6. UMEA IZATEKO EGUNAK BETE JAKOZAN

*. Kabidu ezina  
mundu zabalean,  
gizaki egina  
nire sabelean (2)*

*. Jaungoiko haundia  
egin dot gizaki,  
hau zelan ta zer dan  
Jaunak Berak daki (2)*

## 7. HAN AURKITU EBEZAN MARIA ETA JOSE, ETA UMEA ASKAN ETZUNDA

*. Aingeruei kantuz  
artzainak entzunda,  
Belenen aurkitu  
seaskan etzunda (2)*

*. "Aintza Jainkoari,  
bake gizonari",  
Maria t'aingeru  
Belenen kantari (2)*

## 8. MARIAK GOGOAN JASOTEN EBAZAN GAUZA GUZTI HONEEK

*. Zapian batuta  
seaska hotzean,  
Mariak zer gorde  
badau bihotzean (2)*

*. Jesus sortu eban  
Mariak Belenen,  
Gaur jaiobarritu  
daigula guk hemen.*